



AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUARENA, AUKERAK, GIZARTERATZEAREN EUSKAL AGENTZIARI 2025EAN EGINGO ZAIZKION ENKARGUEI DAGOKIEN TARIFAK ONARTZEN DITUENA

I. – Aukerak – Gizarteratzearen Euskal Agentzia sortzeko irailaren 30eko 3/2021 Legeak artikuluko bakarraren 1. apartatuan ezartzen duenez, zuzenbide pribatuko ente publikoa espetze-legeria betearazteko eskumena duen sailari atxikita egongo da.

II. – Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13.1.f) artikulukoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 20. artikuluan eta hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitzen dio espetze-legeria betearazteko eskumena.

III. – 2022ko urtarrilaren 1ean, Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentzia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko bihurtu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 11/2021 Legearen hamalagarren xedapen gehigarriak ematen dion aitopenearen arabera.

IV. – Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 63. artikuluko xedatzen duenez, bitarteko propioei eta zerbitzu teknikoari egindako enkarguen araubide ekonomikoari dagokionez, baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa atxikita dagoen saileko edo erakundeko organo eskudunak alde aurretik onartutako tarifen arabera zehaztuko da gauzatu beharreko prestazioen zenbatekoa, eta tarifa horiek finantza-nahikotasuneko irizpideekin ezarri beharko dira, dagokion azterketa ekonomikoa egiten ondoren.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Onartzea Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziari 2025ean egingo zaizkion enkarguei dagozkien tarifak. Hona hemen tarifak:

ARLOA	TAILERRA	OKUPAZIOA	Tarifa
Elikadura eta logistika	Sukaldea	Sukaldeko gaik.	12,00
		Sukaldeko laguntzailea	-
		Lag. B. Errazionatuak	5,32
	Okindegia	Enk. Okindegia	8,25
		Lag. Okindegia	6,53
	Ekonomatua	Enk. Ekonomatua	5,95
Lag. Ekonomatua		5,35	
Mantentze-lanak	Mantentze-lanak	Enk. Mantentze-lanak	8,18
		Lag. Mantentze-lanak	6,80



Tailer osagarriak	Logistika	Enk. Biltegia	5,80
		Lag. Ekonomatuen biltegia	5,22
		Lag. Elikadura-biltegia	5,22
	Garbiketa	Enk. Garbiketa	5,80
		Lag. Garbiketa	5,22
	Birziklatzea	Lag. Hondakinen kudeaketa	5,22
	Ikuztegia	Enk. Ikuztegia	5,80
		Lag. Ikuztegia	5,22
	Gizartearentzako zerbitzuak eta irudi pertsonala	Enk. Gizartearentzako zerbitzuak	8,64
		Lag. Suizidioen prebentzioa	7,25
		Lag. Mendekotasunaren arreta	7,25
		Lag. Gatazken bitartekotza	7,25
		Lag. Haurtzaintza	5,22
		Lag. Ile-apainketa	5,22
	Lorezaintza	Enk. Lorezaintza	5,80
		Lag. Lorezaintza	5,22
	Kultura-, jolas-, prestakuntza- eta kirol-jarduerak	Enk. Jard. Kulturalak eta aisialdikoak	9,29
		Lag. Ikus-entzunezkoak	6,67
		Lag. Liburutegia	6,67
		Barneko irakaslea	7,69
		Lag. Kirola	6,67
	Administrazioa eta kudeaketa	Enk. Administrazioa	5,80
		Lag. Administraria*	5,22
		Mendekoa*	5,22

* Aurreko mendekoekin pareka daiteke

Enkargatua: aurreko Goragoko langile baten parekoa.

Laguntzailea: aurreko Oinarrizko langilearekin parekoa.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua
MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ